

GOBIERNO DE NAVARRA

ECONOMÍA, HACIENDA, INDUSTRIA Y EMPLEO

CULTURA, TURISMO Y RELACIONES INSTITUCIONALES

PRESIDENCIA, JUSTICIA E INTERIOR

EDUCACION

DESARROLLO RURAL, MEDIO AMBIENTE, Y ADMINISTRACIÓN LOCAL

SALUD

POLÍTICAS SOCIALES

FOMENTO

SEGURIDAD Y EMERGENCIAS

2013-2014ko zerealaren kanpainan % 3 igo da ekoizpena

730.000 tona baino gehiago izan dira, iazko 708.000 tonarekin alderatuta

Lunes, 18 de agosto de 2014

2013-2014ko zerealaren kanpainan, % 3 egin du gora ekoizpenak iazko kanpainaren aldean, 730.000 tona ekoiztu dira aurten eta 708.000 tona iaz. Hori da berriki Erriberrin izan den kanpaina amaitzeko jardunaldian azaldutakoa. Nafarroako Gobernuaren [INTIA](#) enpresa publikoak antolatutakoa izan zen.

Labore motari erreparatuta, honako hauek izan dira kanpainan errendimendu handiena izan dutenak: B garia (5.000 kg/ha; iaz 4.000 kg/ha), oloa (5.000 inguru; iaz 4.000), koltza (3.000; iaz 2.800) eta babak (3.000 inguru; iaz 2.000). Aurtengo kanpainan errendimendu txikiagoa izan dute ilarrek eta D gariak.

Saioan azaldu zutenez, aurtengo kanpainako eguraldia ohi baino euritsuagoa izan da mendialde behean eta ez hain euritsua zerealen gainerako eremuetan, bereziki Estellerriko hegoaldean.

Temperaturei dagokienez, kanpaina epela izan da, batez besteko historikoa baino 0,5 °C gehiagokoa izan da batez besteko temperatura; hala ere, ez da laburtu laboreen zikloa eta ez da egin goiz uzta, ekaineko eta uztaileko segidako euriteen ondorioz uzta-bilketa abuztuan amaitu delako, iparraldeko eremuetan.

Laboreen errendimenduari lotuta, azpimarratzekoa da hegoaldea ez dela izan iaz bezain emankorra (oso urte ona izan zen), baina ohiko urte baten antzekoa. Ostera, Nafarroa iparraldeko sekain-lurretako gariaren ekoizpena oparoa izan da eta garagarrarena ohiko batez bestekoa adinakoa.

Gaixotasunen gaineko ikerketa

INTIAk antolatutako saioan, amaitu den kanpaina honetan aplikatutako zerealen esperimendazioen alderdirik berritzaileenak ere azaldu ziren, esate baterako, Europar Batasunaren Nekazaritza Politikaren gaurkotasunak, zerealen gaixotasunen intzidentzia eta lehorreko eta ureztatutako laboreen egoera.

Zehazki, herdoil horia bezalako gaixotasunen intzidentziari buruz hitz egin zen. Gaixotasuna kontrolatzeko estrategiei eta nekazariak arazo horri ematen dioten arretari esker, gutxi izan dira horren ondorioz izandako kalteak Nafarroan. Alor horren ikerketan, azpimarratu behar da INTIA lanean ari dela gaixotasunarekiko tolerantetakoak diren bariatateak aurkitzeko eta fungizida eta laboreak babesteko estrategia berriak identifikatzeko.

Lepoko eta sustraiko gaixotasunen ("oineko gaitza" edo "galburu zuriak" ere esaten zaie) intzidentziak ere markatu du aurtengo kanpaina. Hazien eta hostoen hainbat tratamenduren saiakuntza ere egiten ari da INTIA, gaixotasunen eragina ahal bezain beste murrizteko. Hostoen tratamenduetan lortu dira emaitzarik onenak; % 10-12 murriztu da eragina. Gaixotasun horien aurrean ezinbestekoa da txandaketak egitea eta garia erein ondoren berriro garia ereitea saihestea.

Garagarren kasuan, hazi bidez transmititutako gaixotasunetan (ikatz, estalia eta estali gabea, eta helmintosporiosia), haziak babesteko saiakuntzak egiten ari da INTIA, kutsatzea ekiditeko. Oso positibotza jo ziren emaitzak jardunaldian, produktu egokiak erabilia gaitxotasun horien eragina saihestea lor baitaiteke.

Amaitzeko, aurten, garagarraren eta gariaren nanismo horiaren birusak izan duen intzidentzia aipatu beharra dago. Kasu horretan, neguko landare-zorriek transmititzen dute gaixotasuna; hortaz, udazkenean zaindu behar dira, zereala ezartzen ari denean. Birusarekiko tolerantetia diren barietateak ere erabil daitezke.